



LEHEN HEZKUNTZA

3. Zikloa

AMARA BERRI SISTEMA

GLOBALIZAZIOA SISTEMA IREKI BATEN BARRUKO BIZI BILAKABIDE GISA
LA GLOBALIZACIÓN COMO PROCESO VITAL DENTRO DE UN SISTEMA ABIERTO

Dokumentu honen bidez eskolako ezaugarri nagusiak jakitera eman nahi ditugu, honetarako oinarrizko bi dokumentu aipatuko ditugu: **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)** eta **Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP)**.

IHPa gure oinarrizko dokumentua da eta bertan gure hezkuntza asmoa, lortu nahi duguna, jasota dago.

Guk dugun ikaslearen kontzepzio da gure **IHP**aren ardatza:

- Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak. **GURE XEDEA UMEAREN GARAPEN ARMONIKO ETA GLOBALA DA.** Beraz, eskolako helburu orokorrak biziki lotuta daude garapen hiru esparru hauekin.
- Izaki bakoitza norberaren kontzeptu eskema eta emozio-egoeratik abiatzen da eta bere ahalmena du.
- Badago berezitasun bat haur guztiak batzen dituen: jolaserako interesa. Jolasaren bidez helduen mundua imitatzen dute eta imitazioz ikasten dute.

Printzipio metodologikoak ikaslearen kontzeptioarekin guztiz lotuta daude eta hauek gure eguneroko eginbeharra bideratzen dute:

- **INDIBIDUALIZAZIOA:** Eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.
- **SOZIALIZAZIOA:** Elkarreraginak aurrera jotzen eta gure eskemak aldatzen laguntzen digu; honengatik, guk proposatzen ditugun aktibitate guztiak testuinguru sozialak dira.
- **AKTIBITATEA:** Gure helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak eta jakin-mina dutenak lortzea da. "Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin"
- **SORMENA:** gizaki orok duen gaitasuna da. Eremu guztietan sustatzen dugu, pertsona bakoitzak barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.
- **ASKATASUNA:** Besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da, honi "muga soziala" deitzen diogu.
-

Ikastetxeko Curriculum proiektua (ICP) dokumentuaren bitartez aurreko ideiak eguneroko praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz dugun ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten gaitu. Ondoren datozen metodologia ezaugarriek, ikuskera eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia adierazten dute.

- **Antolamoldea** bera esku-harmenerako oinarritzko estrategia da.
- Osagarri eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dugu, hau da, arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei **Testuinguru Sozial, Egonkor eta Osagarriak** deitzen diegu. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako; osagarriak, aktibitateen baturak curriculum osatzen duelako.
- Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaien irteeretan **zertarakoa** edo **helburua** dute. Lanak irteera desberdinak izan ditzake, gela barruan besteen aurrean aurkeztu,... edo eskola irrati eta telebistaren bitartez emititu edo eskola prentsan argitaratu. Baliabide hauen bitartez ikasleek Informazio eta Komunikaziorako Teknologia Berrietan jarduten dute, testu prozesadoreak, Internet, eskanerra, argazki kamera digitala, bideo kamera, bideoen edizioa... erabili eta ikasiz.
- **Ziklo programen** bitartez egiten dugu lana. Taldeetan adin desberdineko ikasleak nahasten dira.
- **Irakasle desberdinek** lan egiten dute ikasle talde bakoitzarekin.
- Aktibitate bakoitza burutu ahal izateko, ikasleek idatzitako **lan metodoak** dituen pausoak jarraitu behar dituzte.
- **Mediateka** edo baliabide gunea lanak burutzeko oinarritzko informazio-iturria da.
- **Kritika eraikitzaileak** aurreratzeko baliabidetzat jotzen dugu.
- **Aniztasunaren** aldekoak gara. Daukagun programari ikasle bakoitzak bere erritmo eta mailaren arabera heldu diezaioke. Ikasketa prozesua ez da adinarengatik geldiarazten.
- **Ezberdintasuna** aberasgarria da eta ez diskriminatzeko arrazoa. Denok ezberdinak gara.

Ikastetxeak badu Arreta Bereziko Zerbitzua. Honek ikasketetan behar bereziak dituzten ikasleei, gaitasun ezagatik zein gaitasun apartagatik, erantzuna ematen die.

3. zikloko beste zenbait ezaugarri:

- Irrati saioa egiten dute.
- Entzumena eta ulermena, besteak beste, irratiaren bidez lantzen da.
- Astero Eskola Prentsa egiten da. Ziklo honetako ikasleek, lanak aukeratu, idatzi eta maketatuz, eguneroko eskola-prentsa argitalpena bermatzen dute.
- Ziklo honetako ikasleek liburutegian txiki blog-ean ere parte hartzen dute.
- Egunero, ikastetxean sortzen diren ekintzetan oinarritutako programak, grabatu, editatu eta ematen dituzte.
- Informatika aplikazioa erabiliz, liburutegiko antolaketa eta funtzionamendua ziurtatzen dute.

EUSKARA

Arlo honetan lortu nahi ditugun helburuak hauek dira:

- Testu ezberdinen ulermena eta adierazpena finkatu eta garatu: literarioak, zientifikoak ...
- Norberaren ahozko nahiz idatzizko produkzioei adierazkortasuna gehiago eman eta hobetu, beraien lanak aberastasuna eta koherentzia emango dizkieten errekurtsioak progresiboki gehituz.
- Ikasbiderako autonomia emango dieten oinarrizko tresnak garatu: informazio iturri ezberdinak, entziklopediak, egunkariak, hiztegiak, ikusi-entzuteko bideak ...
- Ahalmen kritikoa garatu, besteen iritziak ulertuz eta errespetatuz.
- Norberaren hizkuntzaren hausnarketa bultzatu eta erraztu, beraien komunikaziorako gaitasuna handiagotzeko.

Gramatika gunea. Helburu orokorra hizkuntzari buruzko gogoetan kokatzea da, ezagupen berriak eta errekurtsioak jasoz, beraien hizkuntza aberatsagoa, zehatzagoa eta egokiagoa izan dadin.

Lantzen diren edukiak zikloari doazkionak dira: morfologikoak (izena, aditza, adjektiboa, mugatzaileak

...) eta sintaktikoak (perpausa eta motak).

Baita ere tankerako baliabide ezberdinak lantzen dira (konparaketa, metafora, hiperbolea, adjetibazioa ...) eta lexikoa aberastuko dutenak (sinonimoak, antonimoak, deribazioa, arlo semantikoak ..).

Hitzaldia. Hitzaldia idatziz egiten den lan monografiko bat da, taldean azaltzeko. Taldeka egiten da. Lana, bai bakarkakoa eta bai taldekoa, hitzaldi atsegingarria, interesgarria eta koherentea bere garapenean izatera bideratua egon behar du, eduki egoki bat komunikatuz eta informazio berri bat azalduz taldekoei.

Aktibitate honen helburuak hauek dira:

- Testu zientifikoaren ulermena garatu.
- Testu baten ideia nagusiak atera, oinarrizkoa eta osagarria berezitzen.
- Irakurri duten informazioa laburtu eta norberaren hitzekin berridatzi aurkezpena, ortografia, hiztegia ... zainduz.
- Taldean modu ulergarri eta koordinatu batean azaldu, aho hizkuntzaren berezko itxurak zainduz: intonazioa, erritmoa, ahoskera ...

Lumaren kilimak. Norberaren kreatibitateak abiatuz, idatzizko adierazpena lantzen da. Horretarako aktibitate ezberdinak proposatzen zaizkie: deskribapenak, kontakizunak, eskutitzak, antzerkiak, testu deskriptiboak ...

Helburua originaltasunez adieraztean datza, nortasuna, sentimenduak eta esperientziak azalduz eta edukia eta itxura zainduz.

Sormen ahalmena garatzen dute eta idatzera norberaren ezagupenera iristeko eta

komunikabiderako erabiltzen dute.

Antzerkia. Kontestu honetan hizkuntzaren alderdirik literarioena ikasten dute, antzerkia landu, memorizatu eta deklamatu egiten dituzte, alde batetik eta bestetik antzerki lan motzak dramatizatzen dituzte.

Beharrezkoa izango balitz elkarrizketak aldatuko lirateke.

Hemen bereziki aztertzen dira: erritmoa, intonazioa, etenaldiak, nabardurak, adierazkortasuna ...

Lana aukeratu ondoren eta paperak banatu ondoren, entseatuko dute eta gelan taldearen aurrean edo beste talde baten aurrean emitituko dute.

GAZTELANIA

Hizkuntza departamentu honen oinarritzko helburua gaztelaniaren ezagueran sakontzea da.

Lau kontestutan egituratuta: dokumentalak, programak, aldizkaria eta gramatika gunea.

Dokumentalak: Jarduera honen helburu nagusia testu zientifiko deskriptiboen ulermen eta adierazpena garatzen da.

Ikuskatutako dokumentalaren oinarrituz hasten da taldeko lana. Aurrez ikusitako dokumentalari buruzko galderak egiten dituzte, testua taldean bete behar dute erantzun egoki eta esanguratsuekin osatuz. Ondoren, lortutako erantzunen bidez azalpen testua osatzen dute dagokion egitura eta edukia errespetatuz. Azkenik, talde aurrean ahoz aurkezten dute talde aurrean egindako lana.

Programak: Kontestu honen helburu nagusia ahozkoaren garapena da. . Burutu behar dituzten jarduerak ikaslea derrigortzen dute, hizkuntzaren erabilpen bizi eta arin batera, aho hizkuntzara ekarriz beste kontestuetan landutako edukiak.

Ipuinak, txisteak estilo zuzenean eta zehar estiloan, istorioak, albisteak... kontatzen dituzten.

Aldizkaria: testu ezberdinen ezaugarri formalak kontutan izanda, adierazpen idatzia da jarduera honen helburua. Kontestu honetan aldizkaria osatzen dute eta horretarako ipuin asmatuak, txisteak, errezetak, denborapasak, bitxikeriak, albisteak, gertakizunak... Bukatzeko, aurkibidea eta editoriala idazten dute maketazioarekin amaitzeko. Prentsan ateratzen dira.

Gramatika gunea: Gune honetan ezaguera eta baliabide berriak barneratuz beraien lengoia aberatsagoa, zehatzagoa eta zuzenagoa izan dadin, gaztelaniari buruzko hausnarketa egitea da helburu nagusia.

Lantzen diren edukiak zikloari dagozkionak dira: morfologikoak (izena, aditza, adjektiboa, mugatzailea....) eta sintaktikoak (perpaus motak).

Baita ere tankerako baliabide ezberdinak lantzen dira (konparaketa, metafora, hiperbolea, adjektibazioa.....) eta lexikoa aberastuko dutenak (sinonimoak, antonimoak, deribazioa, arlo semantikoak..)

MATEMATIKA

Departamentu honetan matematika lantzen dugu batez ere. Lau kontestutan banatuta dago: neure errekorra, ihardun eta burutu, diseinutegia, korapilo eta kataiatzeak.

Neure errekorra. Kontestu honetan eduki berriak eta terminologia espezifikoak lantzen ditugu txosten batzuen bitartez.

Testuan azaltzen den informazioa aztertzea, edukia bereganatzea, eta ondoren ariketa desberdinetan aplikatu ahal izatea lortu nahi dugu. Halaber, txostenaren berezko egitura menperatzea.

Zikloari dagozkion edukiak lantzen ditugu: zenbaki arruntak, hamartarrak eta zatikiak, zenbaki hauen arteko eragiketak, multiplo eta zatitzaileak, zenbaki lehenak eta konposatuak, eta sistema metriko hamartarra (luzera, masa, barnera eta azalera unitateak).

Ihardun eta burutu. Ikasleek problema mota desberdinak ebatzi behar dituzte. Horretarako fitxategi bat daukate, eta bertan, zailtasunaren arabera antolatuta dauden problemak azaltzen dira. Ebazpenerako proposatzen diren bideak desberdinak dira.

- Idatzizko enuntziatuak: problemetan azaltzen den informazioa aztertzen dute, datuak antolatu, erabiliko duten prozedura arakatu eta emaitza egiaztatu.
- Grafikoak interpretatzea: grafikoei buruz planteatzen zaizkien galderak erantzun behar dituzte.
- Enuntziatuak asmatu: zenbakizko prozedura ematen zaie eta beraiek enuntziatu koherentea asmatu behar dute.
- Hutsuneak dituen enuntziatua: desordenaturik ematen zaizkien datuak toki egokian kokatu behar dituzte.
- ...

Prozedura arakatzeko eta erantzuna egiaztatzeke beharra azpimarratzen dugu.

Diseinutegia. Zona honetan geometria dugu ardatz, eta, besteak beste, hauek dira garatu nahi ditugun helburuak:

Irudi geometrikoak ezagutu, bere elementuak aztertu eta neurtu.

- Irudiak zehaztasunez marraztu, marrazki eta neurketa tresnak modu egokian erabiliz (erregela, eskuaira, kartaboia, angelu-neurgailua eta konpasa).

Moduluetatik abiatzen dira, eta bertan irudi konkretua marrazteko behar dituzten datuak eta neurriak azaltzen dira. Baliabide-fitxategia ere badute, urratu behar duten bidea zein den jakiteko pistak eskaintzen diena.

Behin marraztuz gero, irudia osatzen duten elementuak eta neurriak aztertzen dituzte: erpinak, aldeak, angeluak, altuera, diagonalak... Ondoren

perimetroa eta azalera kalkulatzeko. Azkenik, egindako irudi geometrikoak erabiliz objektu errealak edota asmatutakoak diseinatzen dituzte. Erabakitzen badute, diseinu hauek eskola prentsara bidaliko dituzte.

Korapilo eta kataiatzeak. Kontestu honetako ekintzen bidez logika eta trebetasun matematikoak lantzen dituzte, eta, aldi berean, beste kontestuetan bereganatutako edukiak finkatuz doaz.

Denbora-pasa matematikoak burutu eta asmatzen dituzte: gurutzegramak, labirintoak, zenbaki-segidak, mezu ezkutak, enigmak... Beraiek asmatutakoak, gero, eskola-prentsan azalduko dira.

Ordenagailuen bitartez (J Klic) programako ariketak egiten dituzte.

HISTORIA

Departamentu honetako helburu nagusia hauxe da: gizakien bizimodu desberdinak ezagutu eta ulertzea, denborari eta espazioari dagozkien baldintzak kontuan harturik. Horretarako departamentu honek lau testuinguru ditu:

Munduan zehar

Kontestu honetako helburu zehatzak hauexek dira:

- Planetako eskema orokorra ezagutzea (kontinenteak, ozeanoak, itsasoak,...), biztanleen hainbat ezaugarri (eitea, janzkera, ogibideak,...) eta klima, paisaia eta abar gaineratuz, ahalik eta ezagutza sakonena lortzeko.
- Beste gizatalde edo beste herrialdeetako pertsonak (umeak, emakumeak, gizonezkoak, giza taldeak) nola bizi diren ezagutzea.
- Jasotako informazio hau adierazteko gaitasuna garatzea.

Hau dena burutu ahal izateko, informazio iturri desberdinak erabiliz, planetako leku arrotzetako giza talde, familia eta hurren bizimodua aztertu, eta norbere errealitatearekin alderatzen du. Lana idatzi egiten dute eta eskola telebista edo gelako kideen aurrean aurkezten dute.

Historian zehar:

- Honen helburua zera da: denboran zehar gizartearen bilakaera aztertu eta adierazteko gaitasuna garatzea.

Aro Garaikidea bereziki aztertuko dute, norberak bere familia ardatzat hartuta eta informazio honi beste informazio iturrietatik datozen datuak bilduz. Lan hau burutzeko gurasoen zein beste senitartekoen partaidetza ezinbestekoa da.

Beste aro bat ikasiko dute informazio iturri desberdinak erabiliz. Honez gain lantzen ari diren aroko eguneroko bizitzaren alderdi arruntenak aztertuko dituzte (janaria, etxeak, heziketa, janzkera, sineskerak,...)

Euskal Herrian zehar

Kontestu honetan helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Lan sektoreak bereiztea.
- Leku eta lan desberdinei buruzko informazioa aztertu.
- Autonomi Erkidegoa, lurraldea, eskualdea, herria eta auzoa bereiztea.
- Irteera edo ikerketarako txangoa antolatzea.

Kontestu honetan helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Lan sektoreak bereiztea.
- Leku eta lan desberdinei buruzko informazioa aztertu.
- Autonomi Erkidegoa, lurraldea, eskualdea, herria eta auzoa bereiztea.
- Irteera edo ikerketarako txangoa antolatzea.

Horretarako zera burutzen dute: Nor bere familatik abiatuta eta Euskal Herriraino iritsiz, azken mendeko populazio eta lan sektoreen bilakaerari buruzko azterketa egin, batean zein bestean emandako eboluzioa berdintsua dela jabetuz. Era berean, eskualde geografiko zehatz bat eta bere jarduera ekonomikoa aztertzeke.

Kontestu honetan helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Lan sektoreak bereiztea.
- Leku eta lan desberdinei buruzko informazioa aztertu.
- Autonomi Erkidegoa, lurraldea, eskualdea, herria eta auzoa bereiztea.
- Irteera edo ikerketarako txangoa antolatzea.

Horretarako zera burutzen dute: Nor bere familatik abiatuta eta Euskal Herriraino iritsiz, azken mendeko populazio eta lan sektoreen bilakaerari buruzko azterketa egin, batean zein bestean emandako eboluzioa berdintsua dela jabetuz. Era berean, eskualde geografiko zehatz bat eta bere jarduera ekonomikoa aztertzeke.

NATURA

Departamentu honetako helburuak hauexek dira: gure inguruan ematen diren hainbat fenomeno eta gertakizunekiko jakin-mina piztu, eta azterketa zehatzak egiten ikasi. Honez gain, gertakizun batzuek eguneroko bizitzan duten islapen praktikoa ikusi, eta azkenik, gizakien hainbat jarduerak gure osasunean eta ingurumenean dituzten ondorioak egiaztatu.

Horretarako hiru testuingurutan lan egiten dugu: **Ekosistemak, Esperimentuak/teknologia** eta **Gure Gorputza**.

Ekosistemak.

Testuinguru honetan lortu nahi duguna hauxe da: ikasleek ekosistemen funtzionamendua, ekosistema osatzen duten elementu desberdinen (animaliak, landaretza, baldintza fisikoak) arteko lotura estua, eta gure bizimoduak ekosistemetan duten eragina ulertzen saiatzea, eta ondorioak ateratzen saiatzea.

Horretarako iturri desberdinetan (bideoak, liburuak,...) informazioa lortzen dute, eta informazio hori guztia errealitateak ematen dituen datuekin kontrastatzeko.

Esperimentuak/teknologia.

Fisika zientzia esperimentalak dela eta eguneroko bizitzan aplikazio ugari dutela ikusi behar dute. Hori dela eta esperimentuak gauzatzen dituzte zergatia eta ondorioak ulertzen saiatuz, aurretik ikusi eta ikasitako fisikako hainbat lege eta mekanismoak erabiliz.

Gure gorputza.

Gure gorputzeko bizi funtzioetan parte hartzen duten aparatuak (Digestio aparatua, arnasketa aparatua, zirkulazioa aparatua, nerbio sistema...) eta organoei buruzko informazioa jasotzen dute. Gure gorputzaren garapenerako osasungarriak edo kaltegarriak diren ohiturak aztertzeari garrantzia handia ematen diogu.

INGELESA

Lehen hezkuntzako 3.zikloko ingeleseko irakaskuntzan helburu orokorra gaitasun hauek garatzen dira:

- Hauen mailari egokitutako ahozko eta idatzizko testuak ulertzea.
- Ingeleseko hizkuntza komunikatzeko erabiltzea, bai ahoz, bai idatziz.

Horretarako astean hiru saio erabiltzen ditugu. Saio hauetan lau testuingurutan egiten dituzte aktibitateak.

Story teller.

Kontestu honetan egiten dituzten aktibitateak idazmena eta irakurmena garatzea dute helburu.

Ingelesezko testuetan oinarriturik, biografiak, erreportai txikiak, errezetak eta irakurritako kontakizunaren berri laburra egiten dute.

Testuen ulermena eta berridazketa lantzen da batez ere.

Young writers.

Hemen beren testuak sortzen dituzte: postalak, komikiak, ipuinak, deskribapenak, ingurumenarekin erlazionatutako testuak,... Lan hauek Eskola Prentsan argitaratzen dituzte edo gelakideen aurrean aurkezten dituzte.

Badago astean hirugarren saio bat. Honetan eduki linguistiko berriak aurkeztu eta lantzen ditugu idatzizko aktibitate eta bideoaren bitartez

SCIENCE



Science arloa, hau da Natur Zientziak eta Gizarte Zientzia, ingelesez, garatzen ari garen Hizkuntza Proiektuaren barruan egongo litzateke.

Helburua bezala, ikasleen ingeles maila eta gaitasuna igotzea izando litzateke. Horretarako erabiliko dugun metodología CLIL metodología da. Hau da, hizkuntza eta edukiak uztartzen dituen metodología. Hori dela eta, aurten 3. zikloan ematen diren saioaz gain beste saio bat emango dugu. Saio honetan, hain zuzen ere, Science jorratuko dugularik.

Horrez gain, IKTren erabilpena egingo da. Classroom plataforma erabiliko dugu, honela ikasleek etxean ere eskolan egiten duguna landu, edo ikusi ahal izando dute.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Gorputz Hezkuntza departamentuan saiatzen gara pertsona osoaren formazioan laguntzen, alderdi kognitibo, afektibo eta motoreak sendotuz. Fisiko ekintzak merezi duen garrantziaz gain, kezkatzen gaitu zer esperimendatzen duen orokorrean eta bereziki zeintzuk diren bere bibentzi eta sentsazioak.

Honako helburuak lortu nahi ditugu:

Jolasa eta dinamika egokien bidez, KIROL EKINTZETAN DISFRUTATZEA. Garrantzizkoa iruditzen zaigu, gorputz heziketan, bakoitza norbere exigentziaz abiatuz, gero bere atsedean garaian praktikatu ahal izateko, guztientzako esperientzi atsegin eta ezberdinak izateko aukera ematea. MUGIMENDU TREBETASUN ETA GAITASUNAK BULTZATZEA, ahalegina eta norbere exigentzia baloratu. Era guztietako materialak (sokak, uztaiak, pikak, baloiak, material alternatiboak, frisbiesak, stickak, palak, raketak,...).erabiliz, saio ezberdinak egingo ditugu.

MUGIMENDURAKO GAITASUN EZBERDINAK ERRESPETATZEA, ezberdintasunen integrazioak daraman aberastasunak baloratu. Bakoitzak bere neurrian, talde kirolak eta elkarkidetzak lana bultzatzen duten jolasak egingo ditugu.

BANAKAKO LORPEN ETA AURRERAPENAK BALORATZEA. Ikasle bakoitzaren mugimendu gaitasunak ezberdinak direla sinetsiz, gainditzeko gaitasunari emango diogu garrantzia. Erreferentzi moduan kondizio fisiko frogak egingo dizkiegu kurtso hasiera eta bukaeran.

Berriro ere diogu, bakoitza bere burua gainditzea, helburu txikiak lortzea, dela helburua. Irakaslearen jarrera oso garrantzizkoa da zentzu honetan, ikasleriaren ahalegina, konparaketarik gabe baloratzeko, nahiz eta emaitza, berak nahi duena beti ez izan.. "Erronka ez da besteak gainditzea, baizik eta norbere burua gainditzea".

GORPUTZ MUGIMENDUAK, ERRITMO EZBERDINETARA MOLDATZEA. Helburu honek dantzarekin zerikusirik handia du. Beste maila batean gorputzaren kontrolarekin ere, jauzi, biraketa, oreka...

BAKOITZAREN GORPUTZ GARBIKETA ETA OSASUNBIDE OHITURAK SENDOTZEA. Saioaren bukaeran garbiketarako tarte bat usten da ikasle bakoitzak dutxa hartzeko. Horretarako, arduratu behar dira, beharrezkoak

diren gauzak motxila batean ekartzen. Ohitura bultzatzeko dutxatzera behartzen dugu.

Helburu hauek guztiak burutzeko ekintza multzo handi bat eskainiko diogu gure ikasleriari, guztien edo gehienen gustuak betetzen saiatuz. Ekintza hauek, lehen hezkuntzako programaketa guztian bezala, lau multzo handitan banatuko ditugu:

Jolasak. Koordinaketa orokorra, prestakuntza fisikoa garatzea, eta jokoen arauak ezagutu eta errespetatzea da bere helburua. Estrategia eta elkarketa ezberdinen bidez, talde dinamika egokiak sortzen saiatuko gara.

Adierazpena. Gorputz mugimendua musika ezberdinetara moldatzea izango da helburua, baita desinhibizioa, sormena eta mugimenduen berezkotasuna sendotzea ere. Koreografia bat prestatu, taldekideen aurrean azaldu eta haien balorapena jasotzea izango da multzo honetan landuko dena.

Oinarrizko abileziak. Bere helburua bizkortasuna lantzea, eta gorputza ezagutu eta menderatzea, bai lurrean, baita gimnastika aparailuekin (potroa, plintoa...)

Multzo honetan, oreka, jauziak, biraketak, desplazamenduak, eta ariketa batzuk sortzen duten beldur eta ezinaren sentsazioak gainditzeko lagunduko dien mugimendu koordinazioa sendotu eta landuko ditugu. Baita landuko ditugu, atletismoaren hastapena, korrikaldi, jauzi eta jaurtiketak ere.

Kirolak

Gaitasun eta abilezia bereziak mugikor ezberdinekin, baita baita estrategia batzuen ezaguera eta praktika sakonduko ditugu ere. Talde kirol batzuen ikaskuntza, saskibaloia, futbola, boliebola... baita banakako beste batzuen, esku pilota, eta kirol alternatiboak.

Gure helburua, lehiatzen ikastea eta honen emaitzaren onarpena.

Gaiari dagozkion eduki guzti hauek lantzeaz gain, beste zenbait jarrera edo jarrera landu nahi ditugu, adibidez:

- Neska-mutilen garapen osoa bultzatzea, ez bakarrik alderdi motorean zentratuz, baizik eta beste zenbait alderdiei ere indarra emanez, alderdi kognitiboak, afektiboak etab...
- Solidaritatea, elkarkidetasuna eta errespetua lantzea.
- Diskriminazioa baztertzea.
- Ahalegina emaitzaren ginetik baloratzea.

Era guztietako agresioak baztertzea

ARTE HEZKUNTZA

PLASTIKA

Plastikako departamentuaren helburuak ziklo honetarako hauek dira:

- Ahalik eta modu original eta pertsonalean, forma, kolore eta guneak konbinaturik, adierazpen artistikoa sustatu.
- Behaketa, pertzepzioa eta irudimena garatu.
- Zenbat teknika eta materialen erabiltze zuzena ezagutu eta landu.
- Egindakoarekin gozaten lagundu eta sormena bultzatu.

Departamentuan teknika bidimentsionalak eta tridimensionalak lantzen dira: marrazketa librea, naturalean, abstraktua, collage, oinarrizko eta bigarren mailako koloreak, grekak, mandalak, eta abar. Obra tridimensionalak, poliedroak egiterakoan lantzen dira.

MUSIKA

Hauek dira lortu nahi diren helburuak:

- Musika gure kulturaren oinarritzko elementutzat hartzea eta komunikatzeko modu unibertsal bat dela konturatzea (ideiak, sentimenduak, eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko).
- Kantatzeko eta dantzatzeko ezagupenetara hurbiltzea eta parte hartzea.
- Musika ekoizpenetan oinarritzko teknikak eta baliabideak erabiltzea (musika lenguaia).
- Musika mota ezberdinak ezagutzea eta ulertzea.
- Tresnak, ahotsa eta gorputza probatuz, adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea, inprobisatzeko baliabideak erabiliz.
- Taldeko sorkuntzak egitea, gauzak proposatuz eta talde lana bultzatuz.
- Gure cultura eta beste herri batzuetako ondarea ezagutzea eta interesa piztea.
- Musika- ekoizpen errazak taldean egitea.
- Musikaren bidez komunikaziorako adierazpen-baliabideak ezagutu eta erabili.

Helburu horiek lortzeko edukiak:

- Gorputz adierazpena:
 - o Dantza librea.
 - o Munduko dantzak.
 - o Koreografiak.
 - o Dramatizazioa.
 - o Gorputz perkusioa.
- Ahotsa eta lenguaia:
 - o Kantutegia.
 - o Lenguaiaaren ezagutza.
 - o Entzunaldiak eta musika bidezko adierazpena.

- Musika tresnak:

- Musika tresnen bidezko adierazpena.
- Instrumentuen sailkapena.
- Tresnak sortu.

Guzti hau lortzeko erabiliko den metodologia ludikoa, dinamikoa, sormena eta irudimena bultzatzen duena, talde dinamikak landuz eta integratzailea izango da.

Musikaz disfrutatu eta zaletasuna sortuz!!!!